**ERREPORTAJEA** HELDUENTZAT IKASTAROAK · **GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN

**KIROLA** IÑIGO LARIZEK FRANTZIAKO WEEKEND BEARNAIS LASTERKETA IRABAZI DU


BARREN ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001eko maiatzaren 11a/VIII. urtea/362. zkia




# Ikasteko ez dago adinik

"LELENGO NORBERAK IKASI BEHAR DAU, INORI ERAKUSTEKO" (esaera zaharra)

# nazio
## aske bat
## jaiotzera doa



# euskal herria



BOZK ATU

Euskal Herria

Euskal Herritarrok www.euskal-herritarrok.org



## Lehendabiziko aldiz botoa emateko aukera duzun gazte horri

Politika ez dira pontikariak bakarrik. Jarrera politikoa ez da borroka armatuaren aide ala aurka egotea -nahiz eta hori sinestarazi nahi diguten-. Politika askoz zabalagoa da, eta eguneroko jardunean hartzen diren erabaki guztiak, zureak, gizartearenak ala politikarienak, inguruan eragina duten heinean, politikoak dira.

Ensko Legebiltzarrak bere jardunean erabaki politikoak hartzen ditu: laguntza sozialerako diru gehiago eta poliziarentzako gutxiago bideratzea erabaki dezake, sexuen arteko egiazko berdintasuna bermatuko duten legeak sortu ditzake, gazteon fan baldintza penagarriak eta enpresarien diru irabazi itzelak moztuko dituzten baldintzak ezarri ditzake. Etorkinen egoera tamalgarria konpontzeko benetako bideak martxan jartzeko ahalmena du.

Politika ezkerrekoa ala eskuinekoa da. Eskuinekoa da kapitalaren eta enpresarien interesak beste arazo guztien gainetik jartzen dituenean. Ezkerrekoa da gizartearen beharrak gutxi batzuen interesen aurretik jartzen dituenean. Naziotasun arazoez gain, Legebiltzarrak ezkerrerantz ala eskuinerantz makurtutako erabakiak hartuko ditu datozen urteotan. Eta zuregan eragina izango dute. Zuk botoa eman zein ez.

Ez zaitzatela engainatu. Abertzalea eta ezkertiarra bazara, dagokizuna egizu.

Lorea Perez de Albeniz



## Haunditzen, haunditzen,..

"Haunditzen, haunditzen,ari naiz haunditzen,txikia

Horrelaxe dio txikitako abesti batek. Eta Elgoibar, ba hori, ari da haunditzen, haunditzen. Haunditzen eta berritzen, berritzen eta birziklatzen. Etxe berriak berritzen, auzune berriak egiten, ondorioz kafetegi, taberna, rotonda, jatetxe berriak sortzen, etxe zaharren aurpegiak garbitzen, berritzen eta dotoretzen,.. eta istorioz beteriko lantegi zaharrak birziklatzen, berri egiten, erabilgarriak bihurtzen. Horregatik abesten dut berriro ere... "haunditzen, haunditzen,ari naiz haunditzen,txikia izanik...".

Eguzkiñe Aranberri

MOtZ MotZ ........ 6
kale iNKesta ........ 8
gehigarria ........ 13
kiROlAk ........ 20
aGenda ........ 24

2001-V-11

# Urruzunoren
## begi ezkutua



Bizardun helarrihandi bat bere gobernuaren erabakien berri ematen ari da telebistan: aurrerantzean Ertzaintza Guardia Zibilaren parte izango da. ETB 1 kendu egingo dugu eta euskara museoan gordeko dugu. Ikasleek "España" asignatura ikasiko dute ordu guztietan eta laster zure.... Uaaa! Elgoibartarra kolpetik esnatu da. Amesgaiztoa zen. Eskerrak. Hauteskunde egunaren bezperako gaua da. Elgoibartarra poztu egin da oraindik botua emateko aukera daukalako. Biharamunean botoa abertzaleei emango diela erabaki du, alderdi abertzaleek hauteskundeak irabazteko eta frankista berriei Eusko Jaurlaritzan sartzen ez lagatzeko.

Jon Eugi

## EUSKAL AGIRI NAZIONALA

Elgoibarko EGIk herritarrei jakinarazi nahi dizue, azken hilabeteotan hain ezaguna egin den Euskal Nortasun Agiria egiteko aukera luzatzen dizuegula. Oraingoz agiri honen indarra oso handia ez bada ere, guretzat bere balio sinbolikoa oso garrantzitsua da, eta horregatik eskaintzen dugu agiri hau zuenganatzeko aukera Horretarako, astearteetan eta ostegunetan arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara bitartean Elgoibarko Batzokira gerturatu edo telefonoz honako zenbakira deitu: 943 74 27 44

Elgoibarko Eusko Gaztedi

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
o 943 74 41 12
Publizitatea:
o 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea..com
Helbide informatikoa:
www-topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

ELGOIBARK9ARRA

Litauaroutza Elgoibarko UdalaZUZENDARIA Eli Aizpuru Kozaranutn Itati Agirreazaldegl, Asier Orbea PUBUZITATEA Andallz Agirregomezkorta MAKETATZAILEA Bea Ansola ADMINISTRAZIOA AMEiR Rodrigez GERENTZIA J011 Peii Uriguen ela M. Angeles OdUDSte KOLABORATZAILEAK AMDID Lariz. Unal Argarale, EguzlaneAranberri, Lorea Perez de Albaniz, Jokin Martinez,Ailor Zabaleta. Leire Urkidi, Olga Unzifla. Mordse Arregi, Juanito Gorosliza, Iker Maguregi. Jon Gurrutxaga, Jon Eugi. Ainhoa Andonegi, Kokoe KE. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESALDIA Golzon Garate lupanimean Gertu Koop. E, TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoiharka Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kuktura Sailok ela Font Ahittodiak diraz laguadatako oldizkaria.*

kutxa

1DANOBAT

GOIT I
GRUPO OGNCISIT

2001 -V-11

## ObaRTa

Astelehenean, maiatzaren 14an, hauteskundeei buruzko informazio orria kaleratuko dugu. Beraz, Elgoibarren hauteskundeek zer emaitza izan dituzten jakin nahiz gero, okindegietan edo egunkariarekin batera jaso ahal izango duzue informazi orria astelehen goizean.

---

Urgazi Triatloi Taldeko kideek duatloian laguntzaile eta holuntario moduan parte hartu zutenak txalotu nahi ditu. Bide batez esker edo txalo berezi bat eman nahi diote Benantzio parrokoari eta baita Leoncio Agirrebeñaren familiari hileta elizkizunak atzeratu zituztelako.

Herritar hatek Ubitarte 6 zenbakiko bizilagunak txalotu nahi ditu, etxeko fatxadan egin duten aldaketa delaeta. "Igogailua jarri dute, eta berez aldaketa handia den arren, apenas igartzen da kanpotik begiratuta. Benetan txalotzekoa da herriko estetika apurtu gabe berrikuntzak egitea, eta gainontzeko herritarrek eredutzat hartu beharko lukete hauen lana",




# MAIATZEKO 40%

&,s,irafke-za

**IRTEERAK BILBOTIK HEGAZKINEZ**

MALLORCA
7 gau, pentsio osoan ................. 30.900 pta-tik aurrera

Ei TENERIFE. Puerto de la Cruz
7 gau,ostatua ............................ 34.900 pta-tik aurrera

O TENERIFE hegoaldea
7 gau, pentsio erdian ................. 57.900 pta-tik aurrera

o LANZAROTE
7 gau,ostatua ............................ 53.100 pta-tik aurrera

❑ GRAN CANARIAko hegoaldea
7 gau, gosariarekin ................... 65.400 pta-tik aurrera

ííl DISNEYLAND (Paris)
4 gau pasatu eta 3 ordaidu

▪ SANTA FE HOTELA
Gosariarekin ................................ 64.900 pta-tik aurrera

GREZIA.
Madril edo Bartzelonatik irtenda. 3 gau, gosariarekin.
Atenas ................................ 63.000 pta-tik aurrera
Atenas eta Mykonos ......... 97.000 pta-tik aurrera
Atenas eta Santorini ......... 88.000 pta-tik aurrera
Atenas eta Rhodas 89.000 pta-tik aurrera

**PENTSIO OSOAN, GAU eta PERTSONA BAKOITZEKO PREZIOAK, ** edo *** HOTELETAN**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Kantabria | 3 010 pta. | Torremolinos ... | 4.290 pta. |
| Salou ................ | 3.380 pta.......... | Matalasañas ... | 3.940 pta. |
| Gandia .............. | 4,370 pta.......... | Lioret del Mar... | 2.780 pta. |
| Benidorm | 4 200 pta. | Kanbrils | 3 250 pta. |
| La Manga | 3 820 pta. | Denia | 5 110 pta. |

VIAJES BIPAIAK
**311.31:11:1 EXPVESS**
**BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA**
Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12


Barrak, Birrak eta Barreak



GAZTE JENDEAK IKASTEKO GOGO GUTXI 1ZATEN DU SARRI, ETA URTEAK AURRERA JOAN AHALA, BAT BAINO GEHIAGO IKAS1 EZ 1ZANAZ DAMUTU EGITEN DA. DUELAURTE BATZUK, IKASTEA 050 GAREST1A ZEN, ETA D1RU FALTAK, LAN MUNDURA BULTZATU ZITUEN GAZTE UGARI. 1KASTEA ABERATSEN KONTUA ZEN. BAINA IKASTEKO SEKULA EZ DA BERANDU, ETA ELGO1BARTARROK DEZENTE DAKIGU HORREN 1NGURUAN. HELDUENTZAKO HEZIKETA ESKAINTZA GERO ETA ZABALAGOA DA, ETA EZ DIRA GUTXI KURTS0 HOR1ETAN 1ZENA EMATEN DUTENAK.

# IKASTEKO

Elgoibarko Helduentzako Hezkuntza zentruak (E.P.A.) ireki du aurre-matrikulazio epea. Arduradunek esan digutenez, azken urteotan jendea gutxitu egin da, baina asko dira oraindik ere, alfabetatze kurtsoan izena ematen dutenak. Honez gain, atzerritarrentzako kurtsoak, Eskola Graduatua eta unibertsitatera sartu ahal izateko prestakuntzak ere ematen dira.
Euskal Herriko Kualifikazio Profesionalen Sistemaren baitan, IMHk heziketa programa oparoa eskaintzen du langileentzat. Eskola hauek guztiak Hobetuz erakundeak finantziatzen ditu, eta langileek aukera ezinhobea daukate lan alorrean trebatzeko. Besteak beste, fabrikazioa,

kalitatea.
inguruko
Honekin
teknologh
oinarriak
programa
ikastaro
dizkigu. ll
atseginear
ordutegiai
ikastaroal
ikasten du
kurtsoen t
gonbidatu

*Maria Jesus Azpiazuk 59 urte ditu, eta informatika ikasten ari da. Jubilazioaren atarian, eskolako garaietara itzuli da teknologia berrien munduan barneratuz. Oraindik denbora gubd daramo informatika ikasten, baina dagoeneko bere kabuz moidatzen da ordenadorearekin, eta ez da gubd1 Hasieran, sagua eusteko ere arazoak zituela aitortu digu, baina ez dauka presarik, eta* poliki *gauza ugari ikasi du.*



## M. JESUS AZPIAZU: "Kontabilitatea ikasten ari naiz"

Zer dela eta hasi zinen informatika ikasten?
Ordenadore bat ekan̈i ziguten etxera, eta aparatu hura zertarako zen ere ez nekien. Beraz zerbait ikasi behar nuela erabaki nuen. Horrela, akacietnia bat bazegoela esan zidaten, eta informazio bila hurbildu nintzen. Ikastaro desberdin ugari zegoen aukeran, eta nik oinarrizkoenari heldu nion: Microsoft Word programa erabiltzen ikasi dut, eta orain kontabilitatea ikasten ari naiz. Ez da erraza, baina gustura ari naiz,

Zer moduz moldatzen zara ikastaroan?
Oso onclo. Nire ikastaroa interaktiboa da, hau cla, diskete bat daukat eta bertan agertzen da egin beharreko guztia. Metodologia hau oso praktikoa da. Pausoz pauso azaltzen du dena, eta zerbait ulertu ezean, atzera bota eta berriro gauza bera errepikatzeko aukera ematen du. Kontabilitate kurtsoa desberdina izan da. Kasu honetan, ordenadorearekin lanean hasi aurretik, irakasle bat izan dugu atal teorikoa esplikatzeko, Honetaz gain, akadenUako arduradunak beti daude laguntzeko prest.

Zertarako erabiltzen duzu informatika zure bizitzan?
Gauza oso xumeak egiten ditut ordenadorearekin. Etxeko kontuak eramateko erabiltzen clut, liturgia

**"Etxeko kontuak eramateko erabiltzen dut ordenadorea eta liturgia otoitzak txukun eta dotore ateratzeko"**

otoitzak txukun eta dotore ateratzeko. Nik nahi dudana ateratzen zaidanean pozik eta gustura sentitzen naiz, baina gauzak okertu egiten dira sarri, eta haserretu ere egiten naiz.

Internet mundua ezagutzen al duzu?
Momentuz ez, baina ez diot aterik ixten. Egunen baten hori ere ikasi behar dudala esaten badidate, beldurrik gabe ekingo diot.

# EZ DAGO EDADERIK

nua eta mantenimenduaren
k jorratzen dira.
iarekin nahikoa ez balitz,
aro honetan informatikaren
;utzea ezinhestekoa da. Hezitek
aila guztietara egokitzen diren 40
aktibo baina gehiago eskaintzen
eak bere erritmora eta modu
isten du berari komeni zaion
ta adin guztietara egokitutako
ra. Beste batzuk beren kabuz
distantziatik egin ohi diren
'z, esate baterako. Gaurkoan, bi
rezi ekarri ditugu gure artera.

informatike IKASTAROAK

**1INFORMATIKAN HASTAPENAK**
Windows, Microsoft Word eta Internet.

**OFIMATIKA TEKNIKOA**
Windows, M. Word, M. Excel, M. Acces, M. Power Point, Outlook, PublIsher, Front Page, Internet...

**IDAZKARITZA INFORMATIKOA**
Kontabilitato teorikoa, Conta Plus, Factura Plus, Nomina teorikoa, Nomina Plus, Office, Internet...

**DISEINU GRAFIKOA**
PhotoShop 5, CorelDraw 6-8, FreeHand 9, FrontPage 2000...

**MAKROMEDIA**
Dream Weaver 3, M. Fireworks 3, M. Flash 4...

**DISEINU TEKNIKOA**
AutoCad 14, Solid Edge, 3D Studio..,

**PROGRAMATZAILEA**
Visual Basic 6, Microsoft Visual J++ 6, Borland C++, Builder 5...
Multimedia: Diector, Premiere...

*Hezitek programa

## NIKAX1 ANDONEG1: "Irakasie lanetik 88 urterekin hartu nuen erretiroa baina liburuak ez ditut baztertu"

*Nikoxi Andonegik bizika osoa liburu artean pasa du. Umetan ikaste gisa, etcr gerora irakasle moduan. 20 urte pasatu dira jada jubilatu zenetik, efa oratndik ere ikasten jarraitzen du. Gauza berriak ikasteko sekula ez da berandu, eta 85 urterekin atzerriko hizkuntzak ikasten ari da. Teknologia berriek ere ez diofe beldurrik emcrten, eta duela hiru urte, informatikaren munduan barneratu zen apur bat.*

**Jubilatu ostean ere ikasten?**
Nire afizioa ikastea da. Bizitza guztian jardun dut ikasten, hiru urterekin hasi eta gaur egun arte. Musika, ozeanografia. magisteritza... denetarik egin dut. Nire nahia medikua izatea zen, baina karrera garestia zenez. magisteritza ikasi eta irakasle lanetan aritu nintzen. 68 urterekin hartu nuen erretiroa, baina liburuak ez ditut sekula baztertu.

**"Orain atzerriko hizkuntzak ikasten ari naiz. Ez daukat aspertzeke denhorarik"**

**Informatika ikasten ere jardun duzu, ezta?**
Informatika duela hiru urte hasi nintzen ikasten. Semeak ordenadore berria erosi, eta zahatTa niri eman zidan. Nik ez nekien hura nola erabiltzen zen, eta zerbait ikasi beharrean ikusi nuen nere burua. Honela, distantziatik egindako kurtso bat egin nuen Madrilgo CEAC enpresan, informatikaren oinarrizko gauzak ikasteko. Microsoft Word, Excel eta Acces programak ikasi nituen.

**Nola funtzionatzen dute distantziatik egiten diren kurtsoek?**
Enpresara deitu eta izena eman nuen. Bi lagun etorri ziren nire etxera kurtsoaren nondik norakoak azaltzera, eta handik aurrera norberak bere kabuz ikasten du dena. Madrildik beharrezko materiala eta egin beharreko lanak bidaltzen zizkidaten, eta gero beraiek zuzentzen zidaten guztia, azken kalifikazioa ipiniz. Urtebete jardun nuen ikasten, baina azkenerako aspertu egin nintzen.

**Aurrerantzean beste ezer ikasteko asmorik ba al duzu?**
Informatikaren inguruan ez. Ez dut ordenadorea asko erabiltzen, idazteko bakarrik. Aurrerapen handiak dande, eta Internet erc mundu interesantea izan daiteke, baina ni ez nau konbentzitzen. Orain hizkuntzak ikasten ari naiz. Ingelesa, frantsesa, italianoa eta alemana.



## Altzolako seminario zaharrean etxehitzitzak eraikiko dituzte

### Bi etxebizitza blokeen artean jolaserako gunea egongo da

Uni6n Territorial de Empresas" delakoak Elgoibarko Udalari Altzolako misioetako seminario zaharrean etxeak eraikitzeko baimena eskatu dio. Aurrez Udala bera ere eraikin hori erosten saiatu zen eta baita Debegesa ere. Beraien asmoa, 30 urte luzean hutsik izan den seminarioan, ostatua edota garantia sozialeko moduloak jartzea zen. Baina edifizioaren truke diru asko eskatzen zutenez, asmoa bertan behera geratu zen. Hala ere, "Uni6n Territorial de Empresas"-en eskariari baiezkoa eman dio Udalak.

Etxebizitzez gain, lur azpiko garajeak egingo dituzte. Ondorioz, jolaserako 453 m$^2$ geratuko lirateke, beste 1.255 m$^2$ gune librea izango litzateke eta l66 m$^2$ azeretarako.




*Altzolako seminarioa hutsik dago azken 30 urteetan.*

**Altzola biziberritu**

Uni6n Territorial de Empresasi baiezkoa emateko arrazoia, Udalak Altzola biziberritzeko daukan gogoa da. Izan ere, Gillermo Garate Alkatearen esanetan, "gure ustez etxe berri horietara jende gaztea joango da bizi izatera, eta horrekin batera umeak ere haziko dira bertan. Horrelako lekuetan oso ohikoa izaten da, etxebizitzen azpian egoten diren lokaletan, denda txikiren bat edo eguneroko bizimoduan jendea rnugi arazten duten negozioak zabaltzea eta horrek, giro berria sortuko luke. Gainera, ni alkate naizen bitartean ziur nago Altzolan aldaketa bat baino gehiago egingo dela".

## San Antolinen tren geltokia jartzeko eskaria egin dute hainbat enpresarik eta langilek

### Ordutegiak langileen arabera egokitzea eskatu diote Eusko Tren enpresari

San Antolin inguruan lan egiten duten hainbat enpresarik eta langilek, Elgoibarko Udalarekin batera, herriko auzo honetan trena geratzeko eskaria egin dute.

Orain dela lau urte proiektu hau martxan jartzeko saiakera egin zuten, baina langileek apenas azaldu zuten interesik eta bertan behera utzi zuten plana.

Baina orain Arriagako industrialdera egunero joan beharra izaten duten 600 lagun inguruen sinadurak bildu dituzte. Udalean utzi ostean, jadanik enpresariekin eta Eusko Treneko arduradunekin harremanetan jarri dira.



*Arriagako industrialdean egongo litzateke tren geltokia. Dagoeneko , bertako langileen eta enpresarien artean 600 sinadura bildu dira.*

**Baldintzak**

Besteak beste, ibilbidea Mendaroraino luzatzea, ordutegiak langileen orduetara moldatzea eskatuko diote Eusko Treni, eta era berean enpresek ere ordutegiak egokitzeko ardura izango dute eta langileek tren zerbitzua erabiltzeko konpromisoa.

Beraz, baliteke denbora gutxiren buruan Elgoibarren trenak him geldialdi egitea.




## Parke eolikoaren aurkako akanpada bertan behera geratu zen maiatzaren 5ean

Karakate-lrukurutzeta bizirik plataformak deituta akanpada zegoen iragarrita joan den asteburuirako. Parke eolikoa egiteko proiektuaren aurka protestatzeko hainbat ekitaldi egin zituzten, eta tartean Karakate inguruan akanpada egiteko asmoa zegoen. Eguraldia ez zuten lagun izan, ordea, eta kanpaldia bertan behera utzi zuten. Hala ere, plataformako kideek esan digutenez, ekainaren 30a eta uztailaren la bitartean egingo dute akanpada, eguraldiak hobera egingo duelakoan daude-eta..

## Karakola izabalik izango da oinezkoek langileei trabarik egiten ez dieten bitartean

San Rokera KarakoIetik joateko ohitura dutenek jakin badakite azken aldian obretan ari direla. Enpresen arteko gaizki ulertze batzuk zirela eta Ianak bertan behera utzi eta pasabidea ireki zuten, eta oraindik irekita jarraituko du. oinezkoak bertatik ibiltzeak lanak amaitzea oztopatzen duen arte. Dena dela, itxita ahalik eta denbora gutxien utzi nahi dute, eta azken unera arte oinezkoak pasatuko dira bertatik. Itxi baino lehen bizilagunei jakinaraziko diete, hauentzat eragozpena baita.

## 80 haurrek egingo dute Lehen Jaunartzea domekan Parrokian

Datorren domekan, hilaren 13an, 80 haurrek egingo dute Lehen Jaunartzea San Bartolome Parrokian. Bi elizkizun izango dira: bata goizeko 11:15ean eta eguerdiko I2:45ean bestea. Mezan haurrek Iehen aldiz Kristoren gorputza hartzeaz gain, abestu ere egingo dute. Bestalde elizatik jakinarazi digute goizeko 10:00etako meza herrian hil diren galiziarren omenezkoa izango dela.



## Jende asko bildu zen Plazan azken hilketaren aurkako kontzentrazioan

Joan den igandean. maiatzaren 6an. Zaragozan tiroz hil zuten Manuel Jimenez Abad, PPko Aragoiko presidentea. Hilketa honen aurka protestatzeko eta senideei elkartasuna adierazteko kontzentrazio isila egin zen astelehen eguerdian Plazan. Horrelako hiiketak daudenetan egin ohi denez, Ibarretxe lehendakariaren deiari erantzunez, azken agerraldietan haino jende gehiago bildu zen Plazan. 15 minutuz isilean kontzentratu ostean txaloka amaitu zuten.

### Eusko Legebiltzaprerako hauteskundeak izango dira domekan

# BENETAN GARRANUITSUAK AL DIRA BOMEHAKO HAUTESKUNBEAK?



**TXOMIN ROGEL**

**36 urte, soldadorea**

Beste guztiak bezala, denak dira berdinak. Igandean esnatu eta hauteskunde eguna dela gogoratzen banaiz, botatuko dut. Hala ere, ez zait inporta lehendakaria zein izango den.



**ALAITZ AMEZUA**

**21 urte, ikaslea**

Bai, jendea ez bada mugitzen jai dago. Parte hartu beharra dago, eta aktiboak izan. Nik botoa beti aurretik prestatuta eramaten dut. Aurten lehendakaria Ibarretxe irtengo dela uste dut.



**PUR1 IRISARRI**

**49 urte, administraria**

Bai, noski. Euskal Herriko egoera nahasia ikusita, beharrezkoak dira. Nik botoa etxetik prestatuta eraman ohi dut, eta ziur ez dakidan arren, baliteke lehendakari Ibarretxe ateratzea.



**ONINTZA ARRIZABALAGA**

23 **urte, kamarera**

Bai, oin gauden egoeran bai. Nik behintzat botua etxetik prestauta eruango dot. Dana dala, domekara arte ez dao jakiterik zein izango dan lehendakari berri xa.



**GERMAN ELIAS VAZQUEZ**

**68 urte, jubilatua**

Baietz uste dut. Nik botoa emateko unean bertan prestatzen dut. Emaitzak zein izango diren ezin dugu euneraino bertaraino jakin.



**JESUS MARI OLAÑETA**

**53 urte, promotorea**

Bai, oso garrantzitsuak dira Euskadiren etorkizuna erabakitzeko. Nik argi daukat zeini ernango diodan botoa. Aurten hauteskundeak PNV-EA koalizioak irabaziko dituela uste dut.

**01 ERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea 9 20600 **EIBAR**

**Cordon,Vilarchao, c.b.**

**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

# Gaztia BaRRen

a NAIZ




## *"Eigolbarreivb oz trikixa idab4 jdtZen dakixēnak baina ez dia · kalian* jotize ***attbitzen"***

**Baltzola anaiakELKARRIZKETA SEIEktibitatEaGAIA JUIEn** E5112012LOTSAGABE

## :Jo ta kE

SU TA GAR

Heldu da azkenean euskal heavy zaleek espero zuten diskoa, Su Ta Gar taldearen zuzenekoa. Hogeita hiru abestiz eta bideoz osatutako CD bikoitz boteretsua. Eibartarrek argitaratzen duten zazpigarren lanit dugu "Jo Ta Ke", hainbat urtetan egindako lanaren fruitua. Diskoa latt herri ezberdinetan eskainitako kontzertuetatik sortu da. Kantak aukeratzerakoan, besteak beste, Internet hidez jarraitzaileek emandako iritzia izan dute kontuan. Horrela, adibidez, nonnalean kontzertuetan jotzen ez duten "Itxaropena" entzun dezakegu bertan. TaIdearen garai ezberclinetako abestiak biltzen dira. Hala ere. hastapenetakoak eta azken pausoetakoak dira nagusi. Estraineko laneko "David eta Goliath" edota "Mari" eta "Homo Sapiens'?"-eko "Zabalera begira" eduta "Geroaren hazi heziak", kasurako. Dena den, ez dira falta "Basajaunaren eremuan" edo "Sentimenak jarraituz" zalako kanta mitikoak. Hegoaldekoontzat "Eromena" da abestirik beniena, orain arte Iparraldeko bilduma batean soilik argitaratu baita. Ezustekorik handiena Polla-ren "No somos nada"-ren bertsioa dugu. Dudarik gabe, kontzertuan giro paregabea sortu zuen Evaristo eta konpainiaren kantak. Talde eibartarraren esperientzia. indarra eta zehaztasuna islatzen dira "Jo Ta Ke"-n. Soinua bikaina da eta entzuten diren jendearen oihuak kontzertuetan egon zen edozein entozionatzeko modukoak. Beti aurrera eta segi-segi.

Jon Gurrutxaga






## Arkaitz eta Oier Balzola. BALTZOL

# "Trikitixa terru'

**Arkaitz eta Oier Baltzola. 22 Eta 20 urtEko mutilak. Bata arotza Eta Estarta EnprEsako langilEa bEstEa. Anaiak izatEaz gain bestE gauza askotan datoz bat. Euskal giroa bizi izan dutE txikitatik Eta biak ala biak trikitia dutE bihotzean. AitonarEkin joatEn zirEn biak ErromEriEtara, bEra Ere soinujolEa zen-Eta, soinu handiarEkin ibiltzEn zEn. Duela II urtE hasi zirEn biak soinuarEkin baina gero, Arkaitz pandErora aldatu zEn. Gaur Egun. ElgoibarrEn Baltzola anaiak dira trikitia jotzen dutEn bikotErik EzagunEna Eta EZ dutE gainEra, lagatzEko intentziorik.**

Nondik datorkizue trikitirako afizioa?

Etxetik. Aitxitxak soinua jotzen zaban eta beti enpmerixetara eta txapelketetara eruaten gintxuan. Etxian ere beti trikitixa dao. Guretzat hobbyxa da, barrutik urtetzen jaku. Zaila da esplikatzia.



Uda hurbiltzen den heinean erromeria ugari egon ohi da herrietan. Zuek erromerietara-eta joaten al zarete trikitia ,jotzera?

Iazko urtian asko ibili ginan. gehixen bat auzuetan; Elgoibar eta inguruetan ere bai, Kanpuan ' gehixao, esango gendu-ke: Bidanian, Lasturren, Arraten eta Bizkaia aldian ere asko ibili ginan.

Jenderik egoten aI da erromerietan?

Urtetik urtera dantza eitxeko ohitxura gutxiao daka jentiak. Zaharrak

ANAIAK

# arrutik urtEtzEn jaku"

gero ta zaharrauak dia eta gaztiak ez dabe eitxen. Hala ere, jaixak daozenian, nahiz eta dantzarik ez ein, trikitixa beti jartzen da eta herriko jentia bertan eoten da baina gero ta dantza gutxiao eitxen da.

### Trikitia .jotzetik hizi al daiteke?

Oso gutxi bizi dia hortik eta bizi dianak, maixu onak dialako eta ikasIe pila bat dakatelako da. Urtian zihar erromerixak eitxen ditxue baina klasietatik bizi dia gehixen bat.

### Elgoibarren ha al dago trikitirako joerarik?

Azkoitxin edo Azpeitxin askoz giro gehixao dao. Guk berezko afizio gogor bat dakagulako jarraitzen dogu baina Elgoibarren ez dao giro hori. Hemen kalera urten eta trikitixa joz gero, jendiak ez dau erreparau ere eitxen baina kanpuan bai eta taberna batera sartuz gero, musikia kendu eitxen dabe. Gure koadrilan trikitizaliak dia baina juergarako inork ez du nahi trikitixa. Hori bai, afarien ostian beti jotzen ditxugu piezak, baina gero joera tabernetara jun, sartu eta han egotia da. Trikitixak bolada on bat euki dau baina gaur egun akabau da.

### Etorkizunik ha al du trikitiak?

- Baietz uste dou. Lehengo trikitixa klasikuak igual ez. Beti modemizauko da trikitixa baina ez dogu uste galduko danik. Lehen rocka egon zan modan, oin bakailaua eta zeinek daki, hemendik bi urtera igual trikitixa jarriko da modan.

## "Piezak jotzeko kapazidadia dakagun bitxartian trikitixa jotzen jarraitxuko dogu"

### Noiz arte jarraituko duzue trikitia jotzen?

Piezak jotzeko kapazidadia dakagun bitxartian, beti jotzen jarraitxuko deu.

### Nola anintatu daitezke gazteak?

Garai baten Elgoibarren 60 gazte eon zian ikasten. Oin pixkat aspertuta daoz. Jentiak alkar animatzen dau baina momentuan ez dia animatzen. Trikitixa dakitenak asko daude baina ez dabe nahi kalian jotzia, lotsia ernaten diue.






## Maitasun ElEbErplak irakurtzEn zittuEn agurEa

Hilabete honetan estreinatu da Hego Euskal Herriko zine aretoetan "El viejo que leia novelas de amor" pelikula. Richard Dreyfuss aktore nagusi duen filma, izenburn bereko Luis Septilvedaren liburuan oinarrituta dago. Bada, liburu hori, "Maitasun eleberriak irakurtzen zituen agurea" izenburupean, Txalaparta arg,italetxeak plazaratu zuen 1998. urtean. Ana Santos Elorzak egindako itzulpenari esker. Idazle txiletarrak argitaraturiko liburu honek 1989. urtean Tigre Juan saria irabazi zuen. Laster hainbat hizkuntzatara itzuli zuten eta mundu mailan "best-seIler"a izan zen.
Liburuko protagonista EkuadotTeko Amazoniako herrixka urrun hatean bizi den agurea da. Indiarrekin bizi eta gero, ezin izan da gizarte zibilizatuan integratu eta urtean bitan cramaten dizkioten maitasun eleberriak irakurtzen ematen ditu egunak.

**Jon Eugi**

akurri



# SE1Ekt i bit atEa

**Lau urtetan ikasitakoa ordu gutxitan kanporatzea ez da lan erraza. Selektibitateaz ari gara, azken aldian hainbeste zeresan eman duen azterketaz. Zergatik da hain sonatua? Zergatik piztu du eztabaida? 27 urtez indarrean iraun ostean, selektibitateari berari egin diote azterketa, eta itxuraz ez du gainditu. Pilar del Castillo Espainiako Hezkuntza eta Kultura ministroak, selektibitatea kentzea erabaki duenerako, izango ditu bere arrazoiak. Guk Logseko bigarren mailan dauden lau ikasle ekarri ditugu gure artera eta selektibitateari buruzko iritziak jaso ditugu.**



Ekainaren 13tik 15era bitartean egingo da aurten selektibitatea. Unibertsitate Erreformarako Legea dela-eta, hemendik urte batzutara selektibitatea desagertuko den zurrumurrua zabaldu da, eta horrek iritzi ezberdin asko sortu ditu.

## Selektibitatearen desagerpena

Pilar del Castillo, Hezkuntza eta Kultura ministroaren arabera, "garai batean unibertsitatean eskaintza eskaria baino txikiagoa zen. Gaur egun, demografian gertatu den beherakadarekin egoera ezberdina da. Hala ere, orain unibertsitate bakoitzak zehaztuko ditu bere baldintzak. Azterketa berezi bat eginez, edo karrerarekin zerikusia duten irakasgaietan ikasleek ematen duten maila probatuz. Selektibitatea kentzeak ez du esan nahi orain bi azterketa egin beharko direnik. Izan ere, oraindik ez dute erabaki errebalida egin edo ez".

Gaur egun ESOko ziklo bakoitza behin baino ezin da errepikatu,eta lege berriarekin goragoko maila batera pasatzeko gutxienez bi edo hiru ikasgai gainditu beharko dira.

# .ztErtu bEharrEko aztErkEta

## Ikasleen esanetan

Aurten Selektibitateak sortzen duen ostuasuna pasatu behar duten lau ikasle etorri dira guregana. Azterketen atarian tartetxo bat egin dute etsamin honi buruzko iritzia azaltzeko. Eider, Ion, Imanol eta Ainhoak datorren urtean moduloren bat ikasteko erabakia hartu arren selektibitatea egingo dute.

Eiderren ustez Selektibitatea ez da batere irtenbide ona. "Logseko notak hartu biharko litxuzkete kontuan eta ez bi edo hiru egunetan indako etsaminak". Davidek entzun du zerbait aldaketari buruz, eta zera uste du: "Selektibitatea kentzen badute unibertsitatera sartzeko egingo dituzton azterketak zailagoak izango dira. Beraz, bat aukeratzekotan selektibitatea hartuko nuke".

**"Selektibitatea kentzen badute unibertsitatera sartzeko frogak zailagoak zango dria"**

Jonek azaldu digu selektibitatea kenduz gero zer egin beharko duten: "Bi azterketa izango dira. Bata Logseko rebalida, eta bestea unibertsitate bakoitzak jarriko duena". Ainhoak hau entzunda garbj utzi du berak kentzekotan dena kenduko lukeela, bai selektibitatea eta baita beste azterketak ere.

Dena kenduz gero nola baloratu ikasleen maila?

Guztiek bat egin dute maila neurtzeko Logseko notekin nahikoa dela esatean. Gainera, modulo baten sartzeko hori da eskatuko dietena, eta aurrerago karrera unibertsitario bat

**Probaren bat egitekotan Selektibitatea hautatuko lukete ikasleek**

egiteko asmoa izanez gero, zuzenean sartuko lirateke.

Selektibitatea hitzak nolabaiteko ikara ere eragin die. Eiderren esanetan, "bildurra baino gehixao,trakasllek sortzen daben presiva da, Selektibitatian edozer gauza galdetu dezaketenez, irakasliek prisaka ematen dabe materia dana". Berez, ez omen da hain zaila, edo hori entzun diete selektibitatea aurrez egin duten beste ikasle batzuej, baina urduritasuna eta urte guztikoa denbora tarte laburrean ikasi beharra da Ion eta Imanol dardarka jartzen dituena. ulkasturtean lan eginez gero, tontokeria bat dela esan didate, eta ez dela askorik ikasi behar", osan digu Ainhoak.

### LEGE BERRIAH ZER DIO?

Unibertsitateek autonomia lortuko dute.

ctl Klaustroa irakasleek, ikasleek eta administrazioko kideek aukeratuko dute.

Gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremana estuagoa izango da.

### $7^{7}$.71 7:1111 EIRELEE?

Selektibitatea kentzen badute unibertsitatera sartzeko frogak zailagoak izango dira.

(kt, ikasleen maila neurtzeko logseko notekin nahikoa dela dio gehiengoak.

Azterketa aurrez egin duten ikasleei selektibitatea horren zaila ez dala entzun diete.

Legeak lege ikasleek nahiago lukete inolako probarik gabe unibertsitatean sartzeko aukera lortzea. Dena den, probaren bat egin behar badute selektibitatea hautatuko lukete. Ezagutzen ez don ona baino, ezagutzen den txarra hobea baita gehienetan.



naEILVEZ Jr

2002-2003 1KASTURTEAN JAPONEN GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO 10 BEKA
Nork: La Caixa. Betebeharrekoak: -1965eko ekainaren 29az geroztik jaioa izatea. Nota onarekin karrera amaitutako ikasleak eta ikasketak amaitu zituztenetik 5 urte ez pasatzea MIRa daukaten medikuek hau eskuratu zutenetik 3 urtera bitarteko epea dute aurkezteko. -Karrera ekainean amaitzen dutenek. -Enpresen zuzendaritzarako beka eskatu nahi izanez gero, 2 urteko lan esperientzia eskatuko da. Iraupena: 2 ikasturte. Zenbatekoa: -Abioiko txartela. - Japoniako zentruko matrikula ordaintzeko dirua. Beharrezkoa balitz, 6 hilabeteko japonierako ikasketak. Gastuetarako 185.500 yen. - Segurua eta ikasle bisa. Aurkezteko epea: ekainaren 26a baino lehen. Informazio gehiagorako: La Caixa Fundazioa. 93 404 67 35.

## JARBUNALDIAN

EMAKUMEAREN ESKUBIDEEI BURUZKO JARDUNALDIAK DONOSTIAN
Nork: Haurralde Fundazioak. Iraupena: Maiatzaren 31 eta ekainaren la eta 2a. Edukia: "Emakumearen eskubiderik gabe, ez dago giza-eskubiderik". Izena emateko epea: maiatzaren 31. Informazio gehiagorako: Haurralde Fundazioa. E-maila: haurralde@euskalnet.net. Telefonoa: 943 46 22 90. Prezioa: tailerra eta jardunaldiak, biak batera, 7.000 pta. Jardunaldiak edo tailerrak soilik, 5.000 pta.

# agEnda

## 11 barixakua

ELGOIBAR
17:00 Big lie tour
Antzerkia, olerkiak, grafitiak, kontzertuak, diska jartzaileak etab.
Gaztetxean

BILBO
20:00 Damus Fragile, End of april
Bilborock Aretoan

21:00 Enemigos
Egia Kultur Etxean

22:00 Bronko Bullfrog (UK) eta Wonderboys
Azkena Aretoan

OÑATI
21 : Etzakit
Eteo Unibertsitatean

PASAIA
20:00 Haizebeltz saxofoi laukotea
Pasai Antxoko Kultur Etxean

## 12 zapatua

ELGOIBAR
12:00 Gazte Asanbladaren bilera
Gaztetxean

9:30 Kalejira
*"Gizarte alilaketa bultzatuz"*

22:00 Interruptus
Antzerkia
Gaztetxean

Oncloren Non Demontre eta Zein?
Kontzertua
Gaztetxean

BILBO
22:00 Fang
Azkena Aretoan

TOLOSA
22:3() Anari eta Petti
Bonberenean

## 17 EguEna

BILBO
22:00 Gramophone Man eta Mermaid
Azkena aretoan

## 18 barixakua

BILBO
22:00 Señor Coconut (Alemania)
Azkena aretoan



# lots@gabE

Atal honetan parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri Barrenera. Animatui Zuen laguntza ezinbestekoa dugu!

@ Hasiherriak telesaileko zuzendaria hazina...
Kasting berri bat ingo naban.

@ Argazki bat ateratzeko leku hat eta pertsona hat aukeratu itzazu.
Nobixia (lehenengo euki in bihar da), hondartza batian.

@ Tanga ala kuleroa?
Igual jata.

@ Larru gorritan bainatzea ala bainujantziarekin?
Larru gorritan hondartza nudista batian.

@ Txikitako oroitzapen bat.
Beti gaizki ateratzen nitzan kla-seko argazkixetan.

@ Zeini eman diozu azken muxua?
Ispiluari.

@ Sekula abestuko ez zenukeen abestia?
Realaren himnoa. Aupa Athletic!

@ Zer ikusten duzu ispilura hegiratzean?
Nere klona.

@ Zein ate irekiko zenuke gustutra?
Nesken bestuarixokua.

@ Definitu zure hurua hiru hitzetan.
Bueno ba... errornantikua... 3 hitz, ezta?

@ Amets bat.
izan nun, eztizko amets bat...

@ Bizio hat.
Txatian ibiltzia.

@ TeIebisiako programa hat.
Ostegunetako "Busco pareja".

@ Txiste bat kontatuko al diguzu?
Bai, baina gaur ez! Broma!
Sartzen da mozkor bat enanuen taberna batera eta galdetzen du:
Zeinek desmontau du futbolina?

@ Agurtzeko.
Muxu bat nahi dozun lekuan. '

## LE1-110KETE

### LIBURU BAT **eskuratu**




**Hemendik aurrera, HILERO, GAZTE GEMAGARRIARBUN hatera, LIBURU BAT zozketatuko dugu. Hilabete honetan JASONE OSOROpi huruzko galdera ondo erantzuten digutenen aptean, bere azken liburua zozketatuko dugu, "KORAPILOAK" izenekoa. Hona hemen galdera:**

**ZEIPI EGIN ZUEM IMM KRETORI MODUM JOSONE OSOROK?**

**Erantzunak BARRENera ekar ditzakezue edo buzoian laga hamabost eguneko epean.**

